Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko martxoaren 8a, astelehena — 44 — Lunes, a 8 de marzo de 2021

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### DIPUTATU NAGUSIA

**Estrategia Zuzendaritza Nagusia**

*Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoa Taldean proiektuen programaren dirulaguntza lerroen oinarri arautzaileak eta 2021eko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak, 2021eko martxoaren 2ko bileran, ondorengo erabakia hartu du:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoak, legegintzaldiko gobernu ekintza bideratzeko tresna nagusia denak, Etorkizuna Eraikiz ekimena aldarrikatzen du, eta haren aldeko apustua egiten du, Gipuzkoak dituen erronka eta behar berriei erantzuteko, baita lurraldearen etorkizun partekatuaren eraikuntzari heltzeko ere.

Etorkizuna Eraikizen helburua da guztiok elkarrekin Gipuzkoako lurraldeak etorkizunean izango dituen erronkak hautematea, horiei aurre egiteko modua diseinatzea, ingurune errealetan ezar litezkeen erantzunak esperimentatzea, askotariko eragileekin lankidetzan, eta emaitzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoetan txertatzea.

Gaur egungo egoeran, politika publikoek bizi dugun momentuaren interpretazio egokiaren emaitza izan behar dute gero eta gehiago, eta etorkizunari buruzko hausnarketaren ondorioa. Horrek eraman behar gaitu datozkigun erronken emaitzak planteatzera eta gauzak egiteko modu berriak aztertzera.

Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak inpaktu horiei erantzun nahi die, etorkizunean gertatuko diren beste batzuei aurrea hartu, eta bere praktikak aldaketaren erritmo azkarrak proposatzen dizkigun erronketara egokitu, gobernantza ireki eta lankidetzazko baten bidez.

Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak Etorkizuna Eraikiz sortu du. Jarduketa eredu honen oinarrian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromiso instituzionala dago; izan ere, agenda publikoaren hausnartze eta antolamendu estrategikoan eragile sozialen parte-hartzea eta elkarlana ahalbidetzeko eta gauzatzeko konpromisoa hartu zuen.

Proposatzen den gobernantza irekiaren eta lankidetzazkoaren eredua garatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak bete behar duen baldintzetako bat da ikaskuntzarako eta berrikuntzarako gune irekiak sortzea, pertsonak eta erakundeak elkarreraginean aritzeko, elkarlanean aritzeko eta, azken batean, elkarrekin lan egiteko lekuak ahalbidetzea, erronkei aurre eginez, proposamenak sortuz, edo agenda publikoaren arazoei irtenbideak bilatuz. Beraz, ez da leku bakar bat, truke edo deliberazio egoerak ahalbidetzen dituzten leku fisiko edo birtualen batura baizik.

Etorkizuna Eraikiz eredua, funtsean, bi gune handitan oinarritzen da –Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab–; horietan, lurraldeko eragileen sareak modu partekatuan eta ez hierarkikoan garatzen ditu deliberazio, proposamen eta esperimentazio jarduerak. Jarduera horiek Gipuzkoako agenda publikoan zentratzen dira, eta, berariaz, lurraldearen etorkizuneko erronkei heltzen diete,

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DIPUTADO GENERAL

**Dirección General de Estrategia**

*Bases reguladoras y convocatoria 2021 de las líneas de subvenciones del programa de proyectos Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoa Taldean.*

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 2 de marzo de 2021, ha adoptado el siguiente acuerdo:

El Plan Estratégico 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, concebido como el principal instrumento para el liderazgo en la acción de gobierno de la legislatura, reconoce a la iniciativa Etorkizuna Eraikiz como su principal apuesta para responder a los retos y necesidades emergentes de Gipuzkoa, así como para abordar la construcción compartida del futuro del territorio.

El propósito de Etorkizuna Eraikiz es detectar colectivamente los retos futuros del territorio de Gipuzkoa, diseñar la manera de afrontarlos, experimentar posibles respuestas en entornos reales con la colaboración de distintos agentes y aplicar los resultados a las políticas públicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En el entorno actual, las políticas públicas cada vez más deben ser fruto de una interpretación del momento que vivimos, y consecuencia de una reflexión sobre el futuro, lo que debe llevar a plantearse tanto las respuestas a los retos que vienen, como analizar nuevos modos de hacer las cosas.

En este sentido, la Diputación Foral de Gipuzkoa se propone responder a tales impactos, anticiparse a otros que en el futuro se producirán y adaptar sus prácticas a los desafíos que el ritmo acelerado del cambio nos va proponiendo, mediante una gobernanza colaborativa y abierta.

A tal efecto, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha creado Etorkizuna Eraikiz como modelo de actuación, basado en el compromiso institucional adquirido por la Institución Foral para hacer posible y operativa la participación y la cooperación de distintos actores sociales en la reflexión y elaboración estratégica de la agenda pública.

Uno de los requisitos que la Diputación Foral de Gipuzkoa debe satisfacer para desarrollar el modelo de gobernanza abierta y colaborativa que se propone, es la creación de espacios abiertos de aprendizaje e innovación, propiciar lugares en los que personas y organizaciones diferentes interactúan, colaboran y, en definitiva, trabajan conjuntamente afrontando retos, generando propuestas, o buscando soluciones a los problemas de la agenda pública. No se trata por lo tanto de un solo lugar, sino de la suma de lugares físicos o virtuales que posibilitan situaciones de intercambio o deliberación.

El modelo Etorkizuna Eraikiz se apoya, básicamente, en dos grandes espacios –Gipuzkoa Taldean y Gipuzkoa Lab– en los que la red de agentes del territorio desarrolla de forma compartida y no jerárquica actividades de deliberación, proposición y experimentación. Estas actividades están centradas en la agenda pública de Gipuzkoa y, de forma específica, en abordar los

EK\CV GAO-I-2021-01560

horiek identifikatu, aztertu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoen bidez ezar daitezkeen irtenbideak planteatzen saiatzeko.

Gipuzkoa Taldean gunea herritarrek eta hainbat erakunde eta gizarte erakundek parte hartzen duten proposamenerako eta eztabaidarako eremua da, Gipuzkoako gizartearen ordezkaritza onena eta zabalena lortzeko. Ez da soilik eta bereziki leku fisiko bat, baizik eta lurraldearen etorkizunerako gakotzat jotzen diren ideiak eta proiektuak identifikatzeko eta proposatzeko lekuen batura.

Gipuzkoa Taldeanen lehentasunezko mekanismoetako bat «herritarren proiektuak» deiturikoak dira. Horien helburua da oinarrizko proiektuak planteatzea eta, hala badagokio, garatzea. Hausnarketa estrategikoko eremuekin lotuta daude. Estrategia Zuzendaritza Nagusiak sustatutako urteroko deialdien bidez proposatzen dira. Proiektuen proposamenak lurraldeko hainbat erakunderen bidez planteatu ohi dira (elkarteak, fundazioak, enpresak, unibertsitateak, GKEak, eta abar), eta, oro har, partzuergoetan biltzen dira horiek garatzeko.

«Herritarren proiektuen» helburua da hausnarketa prozesu bat bideratzea lurraldeko eragile guztien lankidetzarekin, Gipuzkoako lurraldea garatzeko behar diren ideia nagusiak edo orientabideak, modu orokorrean, identifikatze aldera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak uste du Etorkizuna Eraikiz ekimenean eragileek eta Gipuzkoako gizarteak zuzenean parte hartzeak lagundu egingo duela ekimenaren izaera eraldatzailean sakontzen, eta ekimenaren proposamen esparrua osatuagoa eta lurraldearen erronketara egokituagoa izango dela. Aldi berean, aipatutako eragile horien parte-hartzeak lagundu egingo du Gipuzkoako erakundeen ekintza publikoa herritarrei gerturatzen.

Hori dela eta, Diputatu Nagusiaren Alorreko Estrategia Zuzendaritza Nagusiak pentsatzen du, aurreko urteetan egindako deialdien esperientzia positiboa ikusita, deialdi berri bat egin behar dela Gipuzkoak dituen etorkizuneko erronkei erantzuna emateko planteatzen diren proiektu berritzaileei dirulaguntzak emateko. Dena dela, aipatutako esperientzia horren ondorioz, hainbat aldaketa sartu behar dira oinarri arautzaileetan.

Zehazki, 2021. urterako, erreferentziatzat hartuta aurreko deialdietako eta 2020. urtean Gipuzkoa Taldeaneko hausnarketa foroetan identifikatutako proposamenen esperientzia, osagai berritzailea duten eta eraldaketa sozialean interes berezia duten esku-hartze estrategikoko esparru hauek identifikatu dira, lankidetzan garatzeko:

— Gobernantza publiko kooperatiborako eredu berriekin lotura duten proiektuak, hala badagokio, maila anitzeko dimentsioa txertatuz.

— Lurralde-garapen komunitarioko proiektuak, jarduera komunitarioa eta komunitatea eraikitzeko ikuspegia sustatzera bideratuak, lankidetzaren, erantzunkidetasunaren, gizarte-inplikazioaren, talde-lanaren eta abarren kultura sustatuz.

— Gazteen parte-hartzeari zuzendutako proiektuak.

— Belaunaldien arteko lankidetza proiektuak.

Foru gobernuak legealdiaren hasieratik hartu du bere gain berritzeko erronka, Gipuzkoako herritarrekin, erakundeekin eta eragileekin oro har lan egiteko eta harremanetan jartzeko bideak indartuz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ulertzen du komunitateko eragileen arteko koordinazioa eta lankidetza ahalbidetuz emaitza positiboak lortuko direla, bai lurralde garapen orekatu eta iraunkorra bilatzerakoan, eta baita ere lurraldearen erronkei erantzuteko ekintzetan. Erronkei aurre egiteak eskatzen du etorkizunaren oinarri izango diren paradigma berrietara hurbilduko gaituzten berrikuntza prozesuen alde egitea.

retos futuros del territorio para identificarlos, analizarlos y tratar de plantear soluciones que puedan implementarse a través de las políticas públicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El espacio Gipuzkoa Taldean es el ámbito para la proposición y la deliberación en el que participan la ciudadanía y las distintas instituciones y organizaciones sociales, de manera que se logre la mejor y más amplia representación de la sociedad guipuzcoana. No es solo ni fundamentalmente un lugar físico, sino la suma de lugares desde los que se identifican y proponen ideas y proyectos que se consideran claves para el futuro del territorio.

Uno de los mecanismos preferentes de Gipuzkoa Taldean son los denominados «Proyectos de la Ciudadanía», que tienen por objeto plantear proyectos básicos y, en su caso, desarrollarlos. Están relacionados con ámbitos de reflexión estratégica. Se proponen a través de convocatorias anuales promovidas por la Dirección General de Estrategia. Las propuestas de proyectos suelen plantearse a través de distintas entidades del territorio –asociaciones, fundaciones, empresas, universidades, ONG, etc.– que, por lo general, se agrupan en consorcios para el desarrollo de los mismos.

El objetivo de los «Proyectos de la Ciudadanía» es plantear una reflexión, compartida con el conjunto de los agentes del territorio, en la que se identifiquen de un modo global las ideas fuerza u orientaciones de desarrollo futuro de Gipuzkoa.

La Diputación Foral de Gipuzkoa considera que la participación directa de los agentes y de la sociedad guipuzcoana en la iniciativa Etorkizuna Eraikiz ayudará a profundizar en el carácter transformador de la iniciativa y a que el marco propositivo de la misma sea más completo y ajustado a los retos del territorio, al tiempo que la participación de los citados agentes contribuirá a vincular a la ciudadanía con la acción pública.

Con tal motivo, la Dirección de Estrategia del Área del Diputado General, tras la positiva experiencia de las convocatorias realizadas los años precedentes, considera conveniente efectuar una nueva convocatoria de la línea para la concesión de subvenciones a proyectos innovadores que se planteen como respuesta a los retos de futuro que tiene Gipuzkoa, si bien introduciendo diversas modificaciones en las bases reguladoras, fruto de la citada experiencia.

En concreto, para 2021, tomando como referencia la experiencia de las convocatorias precedentes y de las propuestas identificadas a lo largo de 2020 en los diferentes foros de reflexión de Gipuzkoa Taldean, se han identificado los siguientes ámbitos de intervención estratégicos, para su desarrollo en cooperación, con componente innovador y con especial interés en la transformación social:

— Proyectos relacionados con los nuevos modelos de gobernanza pública cooperativa, incluyendo, en su caso, una dimensión multinivel.

— Proyectos de desarrollo territorial comunitario orientados a promover la actividad comunitaria y la perspectiva de la construcción de la comunidad, fomentando la cultura de la cooperación, de la corresponsabilidad, de la implicación social, del trabajo en equipo, etc.

— Proyectos orientados a la participación de la juventud.

— Proyectos de cooperación intergeneracional.

El gobierno foral se ha planteado desde el comienzo de la legislatura el reto de innovar mediante la intensificación de vías de trabajo y de relación con el conjunto de la ciudadanía, las instituciones y agentes guipuzcoanos.

Entiende esta Diputación Foral de Gipuzkoa que facilitando la coordinación y la cooperación entre los agentes de la comunidad se obtendrán resultados positivos tanto en la búsqueda de un desarrollo territorial equilibrado y sostenible como en las acciones para responder a los retos del territorio. Hacer frente a los retos exige apostar por procesos de innovación que nos aproximen a los nuevos paradigmas sobre los que se construirá el futuro.

EK\CV GAO-I-2021-01560

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez, etorkizuneko erronkei eman beharreko erantzunak ez dira etorriko ohiko tresnetatik bakarrik. Beharrezkoa da berrikuntzak aplikatzea erakundeek dituzten jarduteko moduetan. Eraginkortasun handiagoa bilatzeko helburu horretan, Foru Aldundia testuinguru bat sustatzen ari da eragileekin sarean elkarlanean aritzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundia lurraldeko eragileekin batera bultzatzen ari den harreman-eredu berria bat dator Europako berrikuntza estrategietan jasotako proposamenekin; eta eredu horrek erraztu egiten du lurralde osorako proposatutako estrategiari lagunduko dioten politiken mix orekatua lortzeko aukera. Foru Aldundiaren iritziz, lurralde osoan elkarreragiten duten giza baliabideen, bitarteko fisikoen, hala nola ezagutza eta harreman arloko baliabideen baitan dago etorkizuneko erronkei erantzutea, horiek guztiek ekosistema bat osatzen baitute.

Harreman horren emaitza da elkarrekin produktu konplexu sorta eskain dezaketela eta berrikuntzako elkarrekiko prozesu bat elika dezaketela. Plan batzuen eta besteen arteko diferentzia, azken batean, plana ezartzeko gaitasunak eta abileziak erabakiko du. Planetan ageri diren ideiak ezartzeko gai izateak emango du bidea «Intended strategies» direlakoetatik «realized strategies» direlakoetara pasatzeko.

Herritarren proposamenekin lortzen diren esperimentazio ekimenetan sortutako aktiboek baliagarriak izan behar dute horiek sustatzen dituzten erakundeek, Gipuzkoako beste erakunde batzuek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak berak, gaitasunak edo onurak lor ditzaten horien erabileragatik. Hala, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren Aktiboen Ereduak, erabaki honen II. eranskinean agertzen denak, esparru inspiratzaile izan behar du proiektuak sortutako aktibo horiek diseinatu, sortu, kategorizatu eta sozializatzeko.

Bestalde, gure gizartea, mundua, asko aldatu dira azken urte hauetan, esparru askotan aldaketak bizkor ari dira gertatzen, jokabide sozialak goitik behera eraldatu eta baldintzatzeraino. Jokabide sozial hauen erdigunean dago hizkuntzaren faktorea, eta berebiziko garrantzia hartzen du, gainera; harreman sozial guztien muinean baitago, modu batera zein bestera, hizkuntzaren bitartez sortzen den harremana.

Teknologiaren garapenak erraztasun ikaragarria sortu duenean jendearen erlazioak bideratzeko, eta ikus-entzunezko bitartekoak gailentzen direnean sarean, ohartuko gara, guztiarekin, hizkuntza dagoela beti harreman ororen oinarrian. Euskara bezalako hizkuntzentzat, batetik aukera berriak sortzen ditu jakintza eta informazioa euskaraz modu errazean ekoitzi eta hedatzeko; baina, bestetik, teknologiaren indarrez eskura dugun munduaren zati oso txiki bat mintzatzen da euskaraz, eta garrantzitsua da alderdi hau, batez ere bizitzaren alderdi garrantzitsuak teknologiaren erabileraren mende dituzten belaunaldi gazteentzat.

Bestalde, mundu mailan ematen ari diren aldaketa demografiko eta sozialak (herritarrak zahartzea, migrazio fluxuak, familia egituren aldaketak eta abar) errealitate bat dira dagoeneko gure lurraldean ere, eta hizkuntzaren eremutik beharrizan berriak sortzen ari dira gaur, eta sortuko dira gehiago etorkizunean; hala nola, talentuaren erronka, eraldaketa digitalak sortutako arrakalaren ondorioak, zaintza sektorean ari diren emakume eta etorkinen inklusioaz gain, euren artatuak ama hizkuntzan zaintzeko zailtasuna.

Aldi berean, egungo egoera hauen guztien arteko konplexutasuna eta interdependentzia geroz eta nabarmenagoa da, diziplina desberdinen arteko muga geroz eta lausoagoa, zeharka dena konektatzen da, hizkuntzak zeharka dena lotzen duen moduan.

Testuinguru horretan, deialdi honen xede ere bada, eta horrela jasotzen da I.2. eranskinean, Etorkizuna Eraikiz ekimena-

La Diputación Foral de Gipuzkoa considera que las respuestas a los retos del futuro no vendrán exclusivamente de las herramientas habituales. Es necesario aplicar innovaciones en los modos de hacer institucionales. En este objetivo de búsqueda de mayor efectividad, la Diputación Foral viene impulsando un contexto de trabajo en cooperación y en red entre diferentes agentes.

El nuevo modelo de relación que la Diputación Foral de Gipuzkoa viene impulsando conjuntamente con los agentes del territorio es coincidente con las propuestas contenidas en las estrategias europeas de innovación y facilita la adopción de un mix equilibrado de políticas que contribuya a la estrategia propuesta para el conjunto del territorio. La Diputación Foral cree que la respuesta a los retos del futuro depende del conjunto de recursos humanos, físicos, de conocimiento y de relación que interactúan en el territorio conformando todo ello un ecosistema.

El resultado de esta interrelación es que juntos pueden llegar a ofrecer un paquete de productos complejos y pueden alimentar un proceso recíproco de innovación. Se considera que la capacidad y la habilidad en la implantación marca, al final, la diferencia entre unos planes y otros. Ser capaces de implantar las ideas que aparecen en los planes es el elemento que hará pasar de «Intended strategies» a «realized strategies».

Los activos generados en las iniciativas de experimentación que se logren con las propuestas de la ciudadanía, deben ser útiles para que, tanto las entidades que las promueven, como otras entidades guipuzcoanas y la propia Diputación Foral de Gipuzkoa, obtengan capacidades o beneficios por su uso. Así, el Modelo de Activos de Etorkizuna Eraikiz, que figura en el anexo II del presente acuerdo, debe servir como marco inspirador para diseñar, generar, categorizar y socializar dichos activos generados por el proyecto.

Por otro lado, nuestra sociedad, el mundo, ha cambiado mucho en estos últimos años, en muchos ámbitos los cambios se están produciendo con rapidez, hasta el punto de transformar y condicionar radicalmente las conductas sociales. El factor lingüístico está en el centro de estas conductas sociales, y adquiere una importancia capital, ya que en el centro de todas las relaciones sociales está, de una u otra manera, la relación que se establece a través del lenguaje.

Cuando el desarrollo de la tecnología ha generado una enorme facilidad para canalizar las relaciones de la gente, y cuando los medios audiovisuales prevalecen en la red, nos daremos cuenta de que, con todo, el lenguaje está siempre en la base de toda relación. Para las lenguas como el euskera, por un lado, genera nuevas oportunidades para producir y difundir el conocimiento y la información en euskera de una manera sencilla; pero, por otro lado, una parte muy pequeña del mundo que tenemos a nuestro alcance gracias a la tecnología habla en euskera, y este aspecto es importante, sobre todo para las generaciones jóvenes que dependen del uso de la tecnología en aspectos importantes de la vida.

Por otro lado, los cambios demográficos y sociales que se están produciendo a nivel mundial (envejecimiento de la población, flujos migratorios, cambios en las estructuras familiares, etc.) son ya una realidad también en nuestro territorio, y desde el ámbito lingüístico están surgiendo nuevas necesidades hoy en día y van a surgir más en el futuro, como son el reto del talento, las consecuencias de la brecha generada por la transformación digital, además de la inclusión de mujeres e inmigrantes en el sector de los cuidados, y la dificultad de cuidar a sus atendidos en la lengua materna.

Al mismo tiempo, la complejidad e interdependencia entre todas estas situaciones actuales es cada vez más evidente, el límite entre las diferentes disciplinas es cada vez más difuso, todo se conecta transversalmente, de la misma manera que el lenguaje lo une todo transversalmente.

En este contexto, es también objeto de la presente convocatoria, tal y como se recoge en el anexo I.2., dentro de la iniciativa

ren barruan, hainbat eragin eremutan euskaraz eta euskaratik elkarlanean landu daitezkeen proiektu esperimentalak finantzatzea, eta horien garapena Badalab, euskara berrikuntza laborategiaren laguntza teknikoaren bitartez gauzatzea.

Badalab euskara eta berrikuntza soziala ardatz dituen laborategi kooperatiboa da eta gaur irekitzen ari zaizkigun eta etorkizunean irekiko zaizkigun eszenatoki hauetan guztietan euskararen erabilera sustatu eta indartzea du helburu. Horretarako, berrikuntza eta esperimentaziotik egin nahi du ekarpena, gidatzen dituen proiektuen arteko loturak eta intersekzioak bilatuz, aukera linguistikoak parekatzeko eta hiztunen arteko berdintasuna sustatzeko, Gipuzkoa 2030 urtean arigune izan dadin.

Eranskin honetara aurkezten diren proiektuek honako eragin eremu hauetako bat jorratu beharko dute:

— Gazteak eta aro digitala - Edukien sorkuntza - Erreferente berrien bilaketa - Diskurtso berriak eta diskurtsoa zabaltzeko modu berriak.

— Euskara eta aukera berdintasuna.

— Hezkuntza formala - eremu ez formala - digitalizazioa.

— Etorkinak - Talentua - Zaintza - Euskaraz funtzionatu nahi duen taldea - dinamika esperimentalak.

— COVID/post COVID gizartean - Hizkuntzaren rola - Komunitatea.

Horretarako, aurretiazko tramitazioari jarraituz bideratu da dagokion espedientea, 37/2006 Foru Dekretuak, abuztuaren 2koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren kargurako gastu espedienteen aurretiazko tramitazioari buruzkoak, 5. artikuluan ezarritakoa betez. Ondorioz, dirulaguntzak eman ahal izateko ezinbestekoa izango da haiek ematea erabakitzen den unean kreditu egoki eta nahikoa egotea Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2021erako aurrekontu orokorretan.

Dirulaguntza hauek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2021. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Foru Arau Proiektuan jasota daude, beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasoko dira.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, diputatu nagusiak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoa Taldean proiektuen programaren dirulaguntzen lerroen oinarri arautzaile orokorrak eta espezifikoak. Programa horrek jarduera ildo hauek ditu:

— Herritarren proiektuak: Gipuzkoak dituen etorkizuneko erronkei erantzuna emateko planteatzen diren proiektu berritzaileak, eragile ekonomiko eta sozialek bultzatutakoak.

— Euskal gizarteko sektore desberdinetan proiektu berritzaileak sustatzea - Badalab hizkuntza berrikuntzarako laborategia: Gizarte-berrikuntzako proiektuak euskaratik eta euskaraz, Badalab Etorkizuna Eraikizen erreferentzia-zentroaren bidez bultzatzen den estrategiaren esparruan.

Oinarri hauek erabaki honen eranskin gisa doaz I. eranskinean. Eranskin hori osatzen dute oinarri arautzaile orokorrek eta oinarri espezifikoek.

*Bigarren.* Onartzea dirulaguntza horien 2021eko deialdia, erabaki honen II. eranskinean ageri den gisan, eta deialdi horri dagokion gastu espedientearen aldez aurreko tramitazioa.

Dirulaguntza hauen deialdiaren zenbateko osoa zazpiehun eta hogeita bi mila euro (722.000,00) da, erabaki honen II. eranskinean adierazten diren aurrekontu sailen kargura.

Etorkizuna Eraikiz, la financiación de proyectos experimentales que se puedan desarrollar conjuntamente en euskera y desde el euskera en diferentes ámbitos de influencia, así como su desarrollo a través de la asistencia técnica del laboratorio de innovación en euskera Badalab.

Badalab es un laboratorio cooperativo centrado en el euskera y en la innovación social, cuyo objetivo es fomentar y potenciar el uso del euskera en todos estos escenarios que se nos están abriendo hoy y que se nos abrirán en el futuro. Para ello, pretende contribuir desde la innovación y la experimentación, buscando conexiones e intersecciones entre los proyectos que lidera, para equiparar las opciones lingüísticas y fomentar la igualdad entre los hablantes, de manera que Gipuzkoa sea un «arigune» en 2030.

Los proyectos que se presenten a este anexo deberán abordar alguno de los siguientes ámbitos de influencia:

— Juventud y era digital - Creación de contenidos - Búsqueda de nuevos referentes - Nuevos discursos y nuevas formas de difusión del discurso.

— Euskera e igualdad de oportunidades.

— Educación formal - Ámbito no formal - Digitalización.

— Inmigrantes - Talento - Cuidados - Grupo que quiere funcionar en euskera - Dinámicas experimentales.

— COVID/post COVID en la sociedad - Rol de la lengua - Comunidad.

A tal fin, se instruye el correspondiente expediente de tramitación anticipada de conformidad con lo dispuesto por el artículo 5 del Decreto Foral 37/2006, de 2 de agosto, sobre tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. En consecuencia, la concesión de subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para 2021 en el momento de la resolución de la concesión.

Estas subvenciones están contempladas dentro del Proyecto de Norma Foral por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2021, por lo que serán recogidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Por consiguiente, a propuesta del diputado general, el Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras generales y específicas de las líneas de subvenciones del programa de proyectos Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoa Taldean, que consta de las siguientes líneas de actuación:

— Proyectos de la ciudadanía: Proyectos innovadores promovidos por agentes económicos y sociales que se planteen como respuesta a los retos de futuro que tiene Gipuzkoa.

— Promoción de proyectos innovadores en los diferentes sectores de la sociedad vasca - Laboratorio de innovación lingüística Badalab: Proyectos de innovación social desde el euskera y en euskera, en el marco de la estrategia que se impulsa a través de Badalab, centro de referencia de Etorkizuna Eraikiz.

Estas bases se adjuntan al presente acuerdo como anexo I, que conforman las bases reguladoras generales y las bases específicas.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria de 2021 de dichas subvenciones, que se acompaña al presente acuerdo como anexo II, así como la tramitación anticipada del correspondiente expediente de gasto.

La convocatoria de las presentes subvenciones alcanza un importe global de (722.000,00) setecientos veintidós mil euros, con cargo a las partidas presupuestarias que se indican en el anexo II antes citado.

EK\CV GAO-I-2021-01560

Edonola ere, deialdi honi dagokion gastu espedientea aldez aurretik tramitatzen denez, dirulaguntzak eman ahal izateko ezinbestekoa izango da haiek ematea erabakitzen den unean kreditu egoki eta nahikoa egotea Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2021. urterako Aurrekontu Orokorretan.

*Hirugarren.* Diputatu nagusiari ahalmena ematen zaio Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2021. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen direnean deialdiari dagokion gastua baimen dezan, behar adina kreditu egokia dagoela egiaztatu ostean.

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2021eko martxoaren 2a.—Juan José de Pedro Alonso, Diputatu Nagusiaren Alorraren idazkaria. (1560)

I. ERANSKINA

OINARRI ARAUTZAILE OROKORRAK

*1. Xedea.*

Oinarri hauen bitartez arautzen diren dirulaguntzen xedea da Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoa Taldean ekimenaren esparruan ondorengo jarduera lerro hauek finantzatzea:

1) Herritarren proiektuak: Gipuzkoak dituen etorkizuneko erronkei erantzuna emateko planteatzen diren proiektu berritzaileak, eragile ekonomiko eta sozialek bultzatutakoak (I.1 eranskina).

2) Euskal gizarteko sektore desberdinetan proiektu berritzaileak sustatzea - Badalab hizkuntza berrikuntzarako laborategia: Gizarte-berrikuntzako proiektuak euskaratik eta euskaraz, Badalab Etorkizuna Eraikizen erreferentzia-zentroaren bidez bultzatzen den estrategiaren esparruan (I.2 eranskina).

*2. Erakunde onuradunak.*

2.1. Oinarri espezifikoetan jarduera lerro bakoitzerako zehazten diren erakunde onuradunek eskatu ahal izango dituzte oinarri hauetan arautzen dirulaguntzak.

2.2. Oinarri hauetan arautzen dirulaguntzen onuradun izateko, entitate eskatzaileak ez du sartuta egon behar 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12. artikuluaren 2., 3. eta 4. paragrafoetan, eta 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 26.3 artikuluan ezartzen dituen debeku kasuetan; eta oinarri hauetan adierazitako gainerako baldintzak ere bete behar ditu.

2.3. Aurreko atalean adierazitakoa egiaztatzeko, entitate eskatzaileak ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko du.

Adierazpen formal hori egitea nahikoa da entitate eskatzailea administrazio publikoa denean; aldiz, merkataritza sozietateek eta elkarteek adierazpenean ageri diren datuak egiaztatu egin behar dituzte dirulaguntza emateko ebazpen proposamena egin baino lehenago, eta, horretarako, hamabost eguneko epea izango dute errekerimendua egiten zaienetik aurrera.

En todo caso, y dada la tramitación anticipada del expediente de gasto, la concesión de las subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2021 en el momento de la resolución de la concesión.

*Tercero.* Se faculta al diputado general para autorizar el gasto correspondiente a la convocatoria de las presentes subvenciones, una vez aprobados los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2021 y comprobada la existencia de crédito adecuado y suficiente.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 2 de marzo de 2021.—El secretario del Área del Diputado General, Juan José de Pedro Alonso. (1560)

ANEXO I

BASES REGULADORAS GENERALES

*1. Objeto.*

Es objeto de las subvenciones cuyo otorgamiento regulan las presentes bases la financiación, en el marco de la iniciativa Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoa Taldean, de las siguientes líneas de actuación:

1) Proyectos de la ciudadanía: Proyectos innovadores promovidos por agentes económicos y sociales que se planteen como respuesta a los retos de futuro que tiene Gipuzkoa (anexo I.1).

2) Promoción de proyectos innovadores en los diferentes sectores de la sociedad vasca - Laboratorio de innovación lingüística Badalab: Proyectos de innovación social desde el euskera y en euskera, en el marco de la estrategia que se impulsa a través de Badalab, centro de referencia de Etorkizuna Eraikiz. (anexo I.2).

*2. Entidades beneficiarias.*

2.1. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases las entidades beneficiarias que para cada línea de actuación se definen en las bases específicas.

2.2. Para obtener la condición de entidad beneficiaria de las subvenciones reguladas en las presentes bases, las entidades solicitantes no deberán hallarse incursas en ninguna de las prohibiciones de los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en el artículo 26.3 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres y deberán cumplir con los demás requisitos que se señalan en las presentes bases.

2.3. La acreditación de lo señalado en el apartado anterior se efectuará mediante la presentación de declaración responsable por parte de la entidad solicitante.

En todo caso, si bien la formalización de dicha declaración será suficiente para las entidades solicitantes que sean administraciones públicas, las sociedades mercantiles y asociaciones deberán acreditar la realidad de los datos contenidos en la misma con anterioridad a la propuesta de resolución de la concesión, para lo cual dispondrán de un plazo de quince días a partir del requerimiento al efecto.

*3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

3.1. Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen jardueraren aurrekontu xehatu eta zehatzean jasota egonik, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta oinarri arautzaileetan ezarritako epean egiten direnak. Adibidez:

— Langileen kostuak. Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

— Ikerketa kontratuko kostuak, jakintza teknikoko kostuak eta lortutako patente edota kanpoko iturri batetik merkatu-lehiaketa maila osoz arituta lortutako lizentzien kostuak.

— Proiektutik zuzenean eratorritako gastu orokorrak.

— Bestelako ustiapen gastu osagarri batzuk, material, hornikuntza, nahiz proiektutik zuzenean eratorritako produktu berdintsuen kostuak.

— Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira zeharkako gastuak, diruz lagundutako jarduerak erakunde onuradunak garatutako gainerako jarduerekiko duen proportzioaren arabera.

3.2. Proiektuetan jaso beharko dira diruz lagundu daitezkeen gastuak, betiere oinarri arautzaile espezifikoetan jarduera lerro bakoitzerako ezartzen den gutxieneko aurrekontua izango dutenak.

3.3. Barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 90a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 €/orduko izango da.

3.4. Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/orduko gehienez.

3.5. Bidaietan eta mantenuan egindako gastuei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren 16/1993 Dekretuak, otsailaren 2koak, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoak, aurreikusitako baremoak aplikatuko dira.

3.6. Ez dira hautatzeko kostuak izango onuradunarekin lotura duten pertsonei edo erakundeei dagozkienak, salbu eta merkatuko baldintza arrunten arabera egiten den eta, aurretik, dirulaguntza ematen duen Administrazioaren baimena lortzen den.

3.7. Inolaz ere ez dira diruz lagunduko zeharkako zergak (BEZa, adibidez), berreskuratu edo konpentsatu daitezkeenean.

3.8. Eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan oinarri honetan diruz laguntzekoak ez diren gastuak sartzen badira, edo diruz laguntzekoak izanik ezarritako muga gainditzen badute, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten ez badiote, behar-beharrezkoak ez badira, edo merkatu balioa gainditzen badute, kendu edo garbitu egingo dira, dirulaguntzaren muga zehazteko oinarri gisa erabiliko den gastu lagungarrien aurrekontua finkatzeko.

3.9. Erakunde onuradunek beste batzuekin hitzartu dezakete dirulaguntzaren xedeko jarduera osoa edo zati bat beraiek egitea, baldin eta 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 28. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen badira. Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua areagotuz jarduera horri ezer gehitzen ez diotenak.

*4. Dirulaguntzetarako eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

4.1. Eskaerak proiektu bakoitzeko bana izan behar dira eta, dagokion dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztu behar dira Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus), dirulaguntzen atarian sartuz eta han eskuragarri jarritako inprimaki espezifikoa betez. Eskaerak

*3. Gastos subvencionables.*

3.1. Se considerarán gastos subvencionables aquellos gastos que figurando recogidos en el presupuesto desglosado y detallado de la actividad que presente la entidad solicitante, respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en las bases reguladoras y en concreto:

— Costes de personal. Se presentará certificado de las horas dedicadas al proyecto.

— Costes de investigación contractual, conocimientos técnicos y patentes adquiridas u obtenidas por licencia de fuentes externas en condiciones de plena competencia.

— Gastos generales directamente derivados del proyecto.

— Otros gastos de explotación adicionales, incluidos costes de material, suministros y productos similares que se deriven directamente de la actividad del proyecto.

— Se considerarán subvencionables los gastos indirectos en función de la proporción que represente la actividad subvencionada sobre el resto de actividades desarrolladas por la entidad beneficiaria.

3.2. Los proyectos deberán incluir gastos subvencionables por el presupuesto mínimo que para cada línea de actuación se establece en sus bases reguladoras específicas.

3.3. Los costes de personal interno no podrán superar el 90 % del coste total elegible, siendo elegible hasta un valor máximo de 35 euros/hora.

3.4. Los costes de personal externo se considerarán elegibles hasta un valor máximo de 69,29 euros/hora.

3.5. En los gastos referidos a viajes y manutención se aplicarán los baremos previstos en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, del Gobierno Vasco, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

3.6. No serán costes subvencionables aquellos correspondientes a personas o entidades vinculadas con la beneficiaria, salvo que se realice de acuerdo con las condiciones normales de mercado y se obtenga la previa autorización de la Administración concedente de la subvención.

3.7. En ningún caso serán subvencionables los gastos derivados de los impuestos indirectos (como el IVA) cuando sean susceptibles de recuperación o compensación.

3.8. En caso de que el presupuesto presentado por la entidad solicitante incluyera gastos considerados como no subvencionables en la presente base, o que siéndolo superasen el límite fijado para ellos, no respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada y no resulten estrictamente necesarios, o superen el valor de mercado, se procederá a su eliminación o depuración al objeto de fijar el presupuesto de gastos subvencionables que servirá de base para la determinación del límite de la subvención.

3.9. Las entidades beneficiarias podrán concertar con terceras personas la ejecución total o parcial de la actividad que constituya el objeto de la subvención, siempre que cumpla los requisitos establecidos en el artículo 28 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. En ningún caso podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la actividad subvencionada, no aporten valor añadido al contenido de la misma.

*4. Forma y plazo de presentación de las solicitudes de subvención.*

4.1. Las solicitudes deberán ser una por proyecto y deberán presentarse, junto con el resto de documentación, vía Internet a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones y cumplimentando el formulario específico dispo-

EK\CV GAO-I-2021-01560

eta dokumentazio osagarria aurkezterakoan foru dekretu hauek bete behar dira: 23/2010 Foru Dekretua, irailaren 28koa, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzekoa, eta 7/2015 Foru Dekretua, azaroaren 30ekoa, Diputatu Nagusiaren Alorreko dirulaguntzei buruzko espedienteen hainbat tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko obligazioa arautzen duena.

4.2. Deialdiaren informazioa eta eskaera-orri normalizatuak eskuragarri egongo dira Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

4.3. Eskaerak aurkezteko epea urte bakoitzeko deialdian ezarriko da.

4.4. Erakunde eskatzaileek ez dituzte aurkeztu beharko jada Gipuzkoako Foru Aldundiak badituen dokumentuak, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 28.2 eta 53.1.d artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki, betiere dokumentuak indarrean badaude eta aurkeztu ondoren ez badira bost urte igaro. Horrelakoetan, eskaera orrian adierazi beharko da dokumentu horiek zein organoren aurrean edo bulegotan eta noiz aurkeztu ziren edo, hala badagokio, egin ziren.

4.5. Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 68. artikuluan ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, zuzentzen ez baditu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

*5. Emateko prozedura.*

5.1. Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da eta deialdi eta hautaketa prozesu bakarra egingo da.

5.2. Prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

*6. Eskaeren ebaluazio irizpideak.*

Deialdira aurkezten diren eskaerak oinarri arautzaile espezifikoetan jarduera lerro bakoitzerako zehazten diren irizpideen arabera baloratuko dira.

*7. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa eta bateragarritasuna.*

7.1. Jarduera lerro bakoitzerako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa oinarri arautzaile espezifikoetan ezartzen da.

Laguntza hauei emandako aurrekontu izendapena, aukeratutako eskaera guztientzako, kopuru horietara iristen ez bada, proiektu bakoitzari eman beharrezko dirulaguntza proportzio berean murriztuko da, eta eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu duten proiektu guztiei dirulaguntza emango zaie baimendutako kreditua agortzen den arte.

7.2. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk xede bererako eman ditzakeen dirulaguntza, sarrera edo baliabideekin, betiere beste dirulaguntzen araudiek xedatu dezaketenaren kaltetan gabe.

7.3. Oinarri hauetan arautatako dirulaguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

nible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, y en el Decreto Foral 7/2015, de 30 de noviembre, por el que se regula la obligación de realizar por medios electrónicos determinados trámites de los expedientes de subvenciones del Área del Diputado General.

4.2. La información de la convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

4.3. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria anual.

4.4. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con lo previsto en los artículos 28.2 y 53.1.d de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, siempre que sigan vigentes y hayan transcurrido menos de cinco años desde que dichos documentos fueron presentados. En estos casos, se deberán indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos.

4.5. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 21 de ese mismo texto legal.

*5. Procedimiento de concesión.*

5.1. El procedimiento de concesión de las subvenciones será el de concurrencia competitiva mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

5.2. El procedimiento se iniciará de oficio, mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*6. Criterios de evaluación de las solicitudes.*

Las solicitudes que se presenten a la convocatoria se valorarán de acuerdo con los criterios que para cada una de las líneas de actuación se fijan en sus bases reguladoras específicas.

*7. Cuantía máxima y compatibilidad de la subvención.*

7.1. La cuantía máxima de la subvención para cada línea de actuación se establece en sus bases reguladoras específicas.

En el caso de que la consignación presupuestaria destinada a estas ayudas no permita, para el conjunto de las solicitudes seleccionadas, llegar a dichos límites, la cuantía de la subvención asignada a cada proyecto se reducirá en la misma proporción, de manera que se subvencione la totalidad de los proyectos que hayan obtenido la puntuación mínima exigida hasta agotar el total del crédito autorizado.

7.2. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

